

**Irurtzun-Andoain autobidea**

# Murua: «Trazaketa aldaketarekin ETaren eskabideak bete egin dira»

Zenbait herritako alkateekin batera agertu zen prentsaurrekoan

**J**oan den astean Gipuzkoako Diputazioko Kontseiluak autobidearen trazaketan ontzat eman zuen aldaketarekin «ETaren eskabideak bete egin» direla adierazi zuen atzo Imanol Murua diputatu nagusi ohiak. San Lorentzo izeneko alternatiba onartzearen protagonistei «fartsanteak» deitu zien Muruak.

P.U. / DONOSTIA

Imanol Murua Gipuzkoako diputatu nagusi ohi eta EAko kidea haserre agertu zen atzo komunikabideen aurrean San Lorentzo izeneko alternatibaren onarpena dela eta. «Batzuetan ez naiz ondo espresatuko, baina nire aurpegia begiratu ahal duzue zer sentitzen dudan ikusteko», esan zien kazetariari prentsaurrekoan.

Imanol Murua, Jose Julian Irizar Gipuzkoako EAko lehendakaria, Julen Goikoetxea Herrilantarako foru diputatu ohi eta Ibarra, Berastegi, Leitza, Berrobi, Elduaien, Tolosa eta Lekunberriko alkateekin batera agertu zen atzo komunikabideen aurrean.

Muruaren ustez, San Lorentzo izeneko alternatibaren onarpena «ikuskari lotsagarria» eta «iruzur politikoa» izan da. Zazpi urteko



Muruak farsante deitu zion Arzalluzi prentsaurrekoan. A. GILNEEA

gatazka amaitu dela diotenekin ez dagoela ados esan zuen, EA, EUE eta PP oraingo trazaketa-rekin ados ez daudelako. «Diferentzia bakarra orain ados ez gaudenok pistolarik ez daukagula da», gaineratu zuen Muruak.

**FARTSANTE ETA GEZURTIAK** San Lorentzo edo Muga trazaketaren inguruko akordioa «ETaren eskabideak betetzea» izan dela azpimarratu zuen Imanol Muruak. Baieztapen hori argudiatzeko ETak agiri batean «benetako adostasuneko konponbidea» eskatu zuela gogoratu zuen. Muruaren esanetan, «ETaren benetako adostasuna Lurraldea eta HBrekikoa zen» eta EAren ustez «benetako ados-

tasuna jadanik bazegoena zen».

Akordioaren protagonistei «fartsante eta gezurtiak» deitu zien Imanol Muruak eta bereziki Xabier Arzalluz eta Joseba Egibar deskalifikatu zituen. Arzalluzi «munduko gezurrik handiena» esatea egotzi zion, ETak nahi izan balu autobidea ez zela eraikiko esateagatik.

Julen Goikoetxea, Gipuzkoako Herrilantarako foru diputatu ohiak San Lorentzo alternatiba kritikatu zuen. Trazaketa gehiena aldapa handian doala eta tunelezko metro asko dituen «arrisku handiagoa» dagoela esan zuen. «Leitzarango balkoia» izeneko tokiaz «bereko baliorik» ez dela esan zuen «ikuspegi ona» izatea ez bada.


# Euskal Ezkerraren proiektua aurkeztu zen atzo Nafarroan

T.S. / IRUÑA

Euskal Ezkerra alderdia aurkeztu zen atzo Nafarroan, Euskadiko Ezkerra alderdiaren zatiketa izan ondoren sortutakoa. Nafarroako batzordea besteak beste Koldo Martinez, Peio Zia, Manolo Lumbresas, Rosa Gallego, Mertxe Ros, Beni Agerreak osatzen dute. Osotara, hamasei kide dira Nafarroan, Martinezek esan zuenaren arabera, baina kontaktu politikoak egiten ari direla zioen, batez era Eusko Alkartasunakoekin, hurrego hauteskundeetara elkarrekin joango direlarik.

«Euskadiko Ezkerra desagertu egingo da sozialistekin elkartu eta gero, eta guk, EUEk, alderdi horrek utzitako hutsunea bêteko dugu», azaldu zuen Martinezek. EEko militanteek PSOEn sartzearen alde daudenen aurka, «alternatiba abertzale eta aurrerakoa defendatzen dugu, beste indar batzuekin elkartuta eskainiko duguna, baka-rik gutxi garelako, eta indar horiek EA eta beste zenbait indar sozial» direla, adierazi zuen Koldo Martinezek.

Bestalde, alderdi honen aurkezpenean Kepa Aulestia eta Xabier Gurrutxagak hartu zuten parte. Gurrutxagaren esanetan, «bakarrik ezin dugu nahi dugun alternatiba eskaini, eta ideia hori duen beste alderdi batekin elkartuko ga-



Xabier Gurrutxaga.

ra». Alternatiba abertzale eta progresista honen beharra Nafarroan EAEn baino nabariago dela zioen eta bi komunitateen artean harremanak sendotzen saiatuko direla.

ETA dela euskal abertzale-letasunaren batasunak duen oztopo nagusia azpimarratu zuen Gurrutxagak, eta «ETaren menpe dagoen HB ez zaigu interesatzen» azaldu zuen. Alde horretatik, abertzale eta EAJkoen arteko elkarriketak ongi iruditzen zitzaizkiela zioen, baina, hori bai, «partidu batek, hau da EAJK, gobernatzeko dituen problemak salbatzeko erabiltzen baditu elkarriketa hauek ez dute ezertarako baliorik izango», gaineratu zuen.

# Autobidearen ondorengo egoera aztertu zuen PPko exekutibak

Z.ZAMAKOLA / BILBO

PSE-PSOEek eta EAJK autobidearen inguruan izandako jarrearen ondorioz «eszenategi politikoa aldatu» egin dela eta, «PPk normalkuntza handiagoko prozesuari laguntzeko zer egin ahal duen» aztertu zuen atzo Bilbon batu zen Exekutibak.

Izan ere, Jaime Mayor Orejaren hitzetan, EAeko egoera politikoa «kontu handiz ibiltzeko momentuan» bait dago «normalkuntzarako hain funtsezkoa den Ajuria Eneako Ituna urratu eta hautsi egin delako».

PPko buruzagiak azaldu zuenez, PPko Exekutibak «funtsezko gai politikoak eta hauteskunde egiturak indartzeari begira, alderdi taldeen egoera» aztertu zuten atzoko bileran.

Ajuria Eneako Ituna «arriskuan» dagoela eritzi zion Mayor Orejak, sozialistek eta jeltzaleek «bartzertu» egin dutelako. Itunaren iraupena PPkoen esku dagoela ukatu zuen eta, aitzitik, hori EAeko bi gobernuakide nagusien ardura zela esan zuen.

«Ikusi egin behar da ea eraku-

tsitako jokabidea zuzendu ahal duten ala dagoeneko Ajuria Eneako Itunak irautea ez dela beharrezkoa uste duten», esan zuen. «Azken batean —gaineratu zuen— pilota EAJ eta PSOEn teiltuan dago».

HB eta EAJren arteko elkarriketen gainean, PPko buruzagiak haiengan inolako itxaropenik ez zeukala berretsi zuen. «Askoz ere itxaropen handiagoa eragiten didate polizi ekintza eraginkorrek, esaterako Pelopintxoren atxiloketak», aipatu zuen Eubaren atxiloketa dela eta.

«Modu formalean» HBk eta EAJK berba egiteak Ajuria Eneako Itunari eraso ez diola egiten aitortuta ere, Mayor Orejak kritikatu egin zuen HBra «negoziazio eta elkarriketa gakoaz» jotzea. «Ez da posible alderdi batek HBrekin hitz egiteko estrategia garatzea globaltasunean isolatze-ko estrategia errotan den artean», adierazi zuen.

Mayor Orejaren iritzian, EAJren jarreraren azalpena izan daiteke ETA «lur jota ikusita», jeltzaleek estrategia aldatzea erabaki izatea.

# Lurraldearekiko kontaktuez prentsa jakin duela dio Allik

IRUÑA

Juan Cruz Alli Nafarroako lehendakariak atzo adierazi zuenez, egunkari bidez jakin du Lurraldea koordinakundearekin kontaktuak egiten ari direla. Koordinakundeak, Nafarroako exekutiboarekin, antza, ireki duen negoziazio prozesua ez dela eten eta zita gehiago daudela eman zuen jakitera prentsa ohar baten bidez, UPN, PSN-PSOE, EA eta IUk egindako bileran autobideari buruz sinatutako akordioari erantzun asmoz. Lurraldeak adierazi zuenez «negoziazio tekniko» martxan dago.

Bilera honetan onartutako mozioa Iruñeko Parlamentuan aurkeztea erabaki zuten lau alderdiok. Lurraldearekin ez negoziatzeko eta autobidearen trazaketan aldaketak gaitzestea erabaki zuten, eta Parlamentuari berreak egitea eskatuko diote.

# Batzar Nagusien erabilpenik ez duela onartuko dio EUEk

DONOSTIA

EAJ-PSOE bikotearen alderdikeria eta agintekeria ekidin ezin baditu ere, EUEk Gipuzkoako Batzar Nagusien «erabilpena ez duela gehiago» onartuko ziurtatu zuen atzo. Patxi Bazarrrika bozerama- learen esanetan, «erabilpen hori ez da ez inoren eta ez EAJ-PSOE bikotearen apeten zerbitzura izango».

Herenegungo Batzar Nagusietako Iraunkorreak EUEren eskagarri erantzunez, «Sudupe jaunak Muga eta San Lorentzo gauza bera zirela aitortu zuen. Garbi gelditu da, beraz, PSOEn gezurra —dio Bazarrrikak prentsa oharraren bitartez— justifikazina dena justifikatzeko ez duela inolako lotsarik izan iritzi publikoa engainatzeko».

Hala ere, Bazarrrikaren

auzi honetan gauzak garbi gelditu dira. «HBk bedeinkatutako EAJ-Lurraldea akordioari azken unean lotu zaio PSOE». «Orain arte gertatu ez den porrot politikotzat» jo du EUEko bozerama- leak EAJ eta PSOEn autobideari buruzko jokaera, «herritarren borondateak askatasunez hartutako erabaki instituzional bat aurrera eramateko gai ez bait dira izan». Beraz, «A-2aren defentsan amore emateko arrazoiak, Arzalluzen arabera, ETA duela izena» dio.

Eta «fartsaren azken ekitaldia» herenegungo Batzar Nagusietako Iraunkorreak gertatu zela ziurtatu du. HB batzorde horretan ez zela izango ziurtatu ondoren —arrazoitzen du Bazarrrikak— EAJ eta PSOEek «aurpegia garbitzeko» arauz kanpoko bozketa egin bait zuten».